

# Asisko gutuna

2013ko Uztaila. 1. printzipioa. Egunero bilatzea Jainkoarekin harreman pertsonala

57. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Asko ez dela iragarki batean honako galdera egiten zitzaigun: “zer egingo zenuke beldurrik ez bazenu?” Frantziskok beldur guztietatik askatzen gaituen Jesus Jauna aurkitu zuen, eta horrek eman zizkion hegoak. Jesusek behin eta berriz errepikatzen digun esaldia da: “ez izan beldurrik”.

Gure lehenengo printzipio honetan beldur guztiak gainditzera garamatzen harremana landu nahi dugu Jainkoarekin, egiaz aske izaten hasteko. “Zer egingo zenuke beldurrik ez bazenu?” Maitatu!

## Gogoetarako gaia

### Zertarako izan nahi dugu libre?

Askatasuna izan da gizadiaren lorpenik handienetakoa bat. Oraindik herri askotan libertaterik ez badago ere, guri lotura politiko eta erlijiosoetatik askatutako kulturen bizitzea suertatu zaigu. Baina askeak gara benetan? Eta zertarako gabiltza libertatearen bila?

Gizartearen eskemen menpean gaude eta nekeza dugu haietatik libratzea: adibidez dirutik, egoera sozial, kultural eta are espiritualetik. Denok daukagu aurrez ezarritako ideia bete beharrekoak.

Baina geure buruaren jabe izatea kentzen digun orok ematen dizkigu lanik handienak aske izateko: ditugun beldurrak eta mugak, geure burua onartzeko eta maitatzeko ... zailtasunak.

Aske izatea gordelekurik gabe bizitzea da, zeri heldurik ez edukitzea, zalantzei beldurrik ez izatea; gizakiak dituen galdera handiak geure buruari egiteko prest egotea, norberak bere bidea erabakitzeke.

Esklabutzetatik aske izatea bizi-proiektu bat izatea eta aurrera ateratzea da, kontrako iritziak,

modak ... direla-eta onartuak ez izateko beldurrik gabe.

Eta hori dena zaila da gure munduan. Askatasuna aipatzen digute, baina iragarki erakargarriek gainezkatuak gaude eta arrastan garamatzate. Esaten zaigu norberak nahi duena egin dezakeela, baina bete egin behar ditugu geuretzat sorrarazi ditugun esperoak, edo aurrez pentsaturiko modeloen menpe dagoen gizartetik inposatuak. Ez. Ez da erraza nor bere buruarekin leial izaten irautea, ez eta leialtasun horren bila norberak aukeratu duen idealarekin ere.

Horrez gain, Jesusen jarraitzaileontzat, libertatea norberaren liberaziotik at doa, hain zuzen Jainkoaren maitasunetik sortzen delako; Hark bere Seme Jesus heriotzaraino eman denarengan eskaini digun maitasunetik.

Geure askatasuna ezin dugu geure proiektua burutzeko soilik bilatu, baizik baita geure burua Jainkoari entregatzeko eta Haren erreinua munduan denentzat landatzeko proiektua betetzeko ere.

## Ebanjelioko pasartea: Jn 8,31-38

Orduan, esan zien Jesusek sinetsi zioten juduei: “Nire mezuan tinko irauten baduzue, zinez nire ikasle izango zarete; horrela, egia ezagutuko duzue, eta egiak aske egingo zaituzte. Erantzun zioten: “Gu Abrahamen hazikoak gara, eta ez gara inoiz inoren esklabo izan. Nola diozu aske izango garela?”. Jesusek erantzun zien: “Bene-benetan diotsuet: Bekatu egiten duen oro bekatuaren esklabo da. Eta esklaboa ez da betiko etxean geratzen; semea, ordea, bai. Beraz, Semeak askatzen bazaituzte, benetan aske izango zarete. Badakit, bai, Abrahamen hazikoak zaretena; baina ni hil nahian zabiltzate, nire mezua zuengan itsasten ez delako. Neure Aitaren ondoan ikusi dudana mintzo naiz ni; zuek, ordea, zeuen aitarengandik ikasi duzuen egiten duzue”.

## Frantziskotar espiritualtasuna

Frantzisko agertu zen Gotzainaren aurrera eta esan zion: «Gotzain jauna, pozik itzuliko diot, ez bakarrik bere gauzak salduz lortu dudana dirua, baita soinekoak ere». Erantzi zituen soinekoak, jantzien gainean dirua jarri eta biluzik irten zen denen aurrera; eta esan zuen: «Orain arte Pedro Bernardoneri deitu diot neure aita. Hemendik aurrera «Gure aita, zeruetan zarena» esan nahi dut eta ez «aita Pedro Bernardone» (ik. HLaLe 19-20).

Frantziskorentzat askatasuna konfiantzatik sortzen da. Maitez zaintzen gaituen Aita Jainkoagan konfiantza izanez, Frantzisko aske sentitzen da; aske, ondasunak izateko irrikatik eta segurtasunak gordetzeko kezkatik. Joan daiteke munduan eta bizitzan zehar larritasunik gabe gaurkoagatik eta estutasunik gabe biharkoagatik. Aita Jainkoagan du konfiantza, gizaki eta izaki guztien senide sentitzeraino. Eta senide gisa aske jartzen da besteen aurrean, beldurrik eta tolesturirik gabe, ezer ezkutatu eta babestu beharrik gabe, etsaigorik eta borrokarik gabe bere prestigioa zaintzeko. Aske eta Jesu Kristoren jarraitzaile izanik, aurkez daiteke besteen aurrean azken tokian eta denen zerbitzari. Frantziskok konfiantza du, Jainkoaren Espirituak pertsona bakoitzari eragingo dion konfiantza; eta horregatik bere anaiak gonbidatzen ditu, Jainko Jaunari atsegin izateko modurik onena iruditzen zaien modura jokatzera. Eta horrela Jainkoaren seme-alaben askatasunez bizitzera eragiten die, Espiritu Santuaren arnasaren pean.

## Otoitza

Maite dut askatasuna.  
Nik aske izan nahi dut;  
aske, ideia berrien bila nire ametsentzat.  
Aske, proiektu berrien protagonista izanik,  
jada haur ez den eta pertsona heldu  
izan nahi duen norbaitek bezala.  
Aske, bere arrazoiak dituen eta  
esan nahi dituen norbaitek bezala,  
bideko seinalerik behar ez duen norbaitek bezala.  
Aske, erantzule sentitzen den norbaitek bezala;  
askatasuna estreinatut duen norbaitek bezala.  
Jauna, zure Ebanjelioa ez al da, bada,  
bihotz askearentzako kantu bat?

Lagun iezadazu, Jauna, neure aurpegia bilatzen,  
Zu nire baitan aurkitzen,  
benetan naizen bezalakoa onartzen.  
Lagun iezadazu nire beldur eta zalantzak eramaten,  
nire porrotak gainditzen eta  
nire lur-jotzeetatik irteten.  
Lagun, aurrera jarraitzen atzera itzuli gabe,

adore-gabeziak eta desilusioak gainditzen.  
Lagun, egunero eta beti hasten.

Zu, Jesus, itsas bazterreko  
arrokaren antzekoa zara,  
zuhaitzari eusten dion sustraia bezalakoa.  
Iturburu zara,  
erreka elikatzen duen iturria.  
Behar dudana indar eta sostengua zaitut, Jesus.  
Ez dut neure baitan itxia gelditu nahi, Jesus Jauna;  
hautsi nire eskola, eraitsi nire harresia,  
izan Zubi niretzat,  
nire loturetatik bihotz berri eta  
biziz bete baten askatasunera  
igarotzeko behar dudana Zubi hori.

Sor, Jauna, guregan bihotz aske, garbi eta gardena  
zure aurpegia ikusi ahal dezagun.  
Sor guregan bihotz apal, ezti eta anaikorra,  
zure presentzia jai pozgarri  
bihur dadin gure bidean.

## Gutuneko azken hitzak

Libre izateko askatu gaitu Kristok. Iraun ezazue, beraz, sendo eta ez makurtu berriro esklabutza-uztarpera. (Gal 5,1)

## 2013ko uztaileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate uztaileko erreferentzia guztiak:

1 Mt 8, 18-22	8 Mt 9, 18-26	15 Mt 10, 34-11,1	22 Mt 12, 38-42	29 Mt 13, 31-35
2 Mt 8, 23-27	9 Mt 9, 32-38	16 Mt 11, 20-24	23 Jn 15, 1-8	30 Mt 13, 36-43
3.Jn 20, 24-29	10 Mt 10, 1-7	17 Mt 11, 25-27	24 Jn 12, 44-50	31 Mt 13, 44-46
4 Mt 9, 1-8	11 Mt 19, 27-29	18 Mt 11, 28-30	25 Mt 13, 1-9	
5 Mt 9, 9-13	12 Mt 10, 16-23	19 Mt 12, 1-8	26 Mt 13, 18-23	
6 Mt 9, 14-17	13 Mt 10, 24-33	20 Mt 12, 14-21	27 Mt 13, 24-30	
7 Lk 10, 1-9	14 Lk 10, 25-37	21 Lk 10, 38-42	28 Lk 11, 1-13	